

IBILBIDEAK

BAIONA



AKITANIA BERRIA



VILLES
& PAYS
D'ART &
D'HISTOIRE

Baiona izaera handiko hiria da, haren nortasun indartsua eraikinetan eta ondare-kultural aberatsean oinarritzen delarik. Ondare hori, hiri-multzo bikaina da, monumentu historikoen inguruan antolatua, hots, katedralak, gazteluak, gotorlekuak..., denboran errotutako ezaugarriak dituen hiri baten paisaia agerian uzten du, haren zehaztasun arkitektonikoekin eta espazio naturalekin, berezkoak edo sortuak.

Gaur egungo Baiona, historiaren emaitza da, bere historiarena, hain zuzen ere. Harresitutako hiri militar baten eta portu bateko jarduerak gordetzen zituen ibai- eta itsaso-hiri baten memoria. Hirigune zaharreko hiru-multzoak agerian uzten du historia hori, bere arkitekturan, bertako bizimoduetan, hiriaren sorrera berean, Frantzia hiri-modelo aparta sortuz babestutako sektore baten barruan aintzatetsia.

Harremanen tradizio sekularren atxikimenduan oinarritutako bizitzeko artea sustatzen du Baionak, irekitasunean eta bizikidetzan oinarrituz, etengabe berritzen den ondare immateriala. Hain lagunartekotasun berezia abantaila handia izan da hiriaren distirarako eta bitzako praktketan oinarritzen da identitate hori bere osotasunean.

«Parcours: Bayonne» argitalpena ondare horiek ezagutzeko gonbidapen polita da. Historia, modernotasun eta identitate artean, Baiona, artez eta historiaz betetako hiria ezagutzeko gonbita luzatzen dizuet. Ezagutza hau hiriko kaleetan ematea nahi dut, paseo batean edo bizikidetzara une batean, horrela Baionak dituen gauza eder guztiak ezagutzeko aukera izango duzue.

Jean-René Etchegaray

Baionako Auzapeza

Euskal Elkargoko Lehendakaria

Bayonne est une ville de caractère dont la personnalité forte repose sur un riche patrimoine bâti et culturel. Ce patrimoine, c'est d'abord un ensemble urbain exceptionnel qui se décline autour de monuments historiques – cathédrale, châteaux, fortifications... -, révélant le paysage d'une ville caractérisée par son ancrage dans le temps, ses spécificités architecturales et ses espaces naturels, spontanés ou provoqués.

Bayonne aujourd'hui est le résultat de l'histoire, de son histoire, mêlant les destinées d'une cité militaire fortifiée et la mémoire d'une ville fluviale et maritime abritant les activités d'un port. L'ensemble urbain du centre ancien révèle cette histoire, dans son architecture, dans ses modes d'habiter, dans la formation même de la ville, fondant un modèle urbain unique en France, reconnu au sein d'un secteur sauvegardé.

Bayonne cultive aussi un art de vivre qui passe par l'adhésion à des traditions séculaires d'échanges, d'ouverture et de convivialité, véritable patrimoine immatériel sans cesse renouvelé. Cette sociabilité si particulière constitue un atout majeur pour le rayonnement de la ville et repose sur des pratiques vécues comme une identité à part entière.

La publication « Parcours : Bayonne » est une belle invitation à découvrir l'ensemble de ces patrimoines. Entre histoire, modernité et identités, je vous propose de partir à la rencontre de Bayonne, ville d'art et d'histoire. Je souhaite vivement que cette découverte se prolonge dans les rues de la ville, au détour d'une promenade ou d'un moment convivial, afin que Bayonne se révèle à vous dans ce qu'elle a de plus beau.

Jean-René Etchegaray

Maire de Bayonne

Président de la Communauté
d'agglomération Pays Basque

Idazlea

Evelyne Pédurthe,
Baionako kultura eta
ondare zuzendaria,
Hiriko arte eta historia
zerbitzua

Argazkien kredituak

Baiona, Germaine
Auzeméry-Clouteau,
Mathieu Prat eta Cédric
Pasquini

Maketazioa

Michaël Barret
DES SIGNES estudio
Muchir Desclouds
estudiotik 2015

Inprimatzea

Imprimerie Mendiboure
Imprim'Vert ziurtagiri-
dun inprimategia

5 HIRI BATEN FORMA

10 HIRIA MENDEETAN ZEHAR

17 TOKI BATETIK BESTERA

24 PRAKTIKAK ETA IDENTITATEAK

30 HIRIKO PLANOAK



1. Baiona Aturri eta Errobi ibaien elkargunean

Aturri ibaiaren ibileraren mapa Dax-etik Baionara (XVI. mendea), Baionako Mediateka



2. Dorre erromatarra

Lachepaillet gotorlekua dagoen bulebarrean



3. Baionako berriztapena IV. mendean

Dominique Duplantier-en irudia



HIRI BATEN

FORMA

KOKALEKU NATURALA

Bizkaiko golkoaren sakonunean, Baiona Landetako lautadaren eta Pirinioen artean kokatzen da. Kokapen geografiko aparta du, komunikabide ardatz nagusien artean. Hiria Aturri ibaiaren eta haren ibaiadarra den Errobi ibaiaren artean kokatzen da, bailara nagusia hertsitzen eta ibaiari zabalgunea ematen dion tokian, hain zuzen ere. Elkargune hau uholde asko ematen diren lurralde baxuak menperatzen dituzten muinoekin inguratuta dago. Bi ibaiak itsasaldien fluxuen menpe daude normalean. Aturri ibaia, hiritik gorantz doan bost ehun metro baino gehiagoko ibai ederra da eta Baionara iristen da Bigorratik hirurehun eta hogeit hamar kilometroko ibilbidea egin ondoren. Errobi ibaiak hiriaren erdigunean egiten du topo Aturri ibaiarekin, Saint-Jean-Pied-de-Port eskualdetik hirurogeita zortzi kilometroko ibilbidea egin ondoren. Beraz, Aturri eta Errobi ibaien elkarguneak Baionako garapena baldintzatu dute, itsas- eta ibai-merkatal portu bihurtuz hiria. Bi itsas jarioen urratsa agerikoa da hiriaren paisaia eratzeke orduan.

LURRALDE BATEN SORRERA

2010 urteaz geroztik egindako indusketa arkeologikoen arabera, gizakia 200 000 urte baino gehiagoz bizi izan da Baionako inguruetan. Gaur egun frogatuta dagoeneraino, Iparraldeko gizaki-presentzia zaharrena da. Garaieratik sortutako bi ibaien artean sortutako lautada alubialen konkista progresiboa, ura menperatzea, lehorketa eta lurren betelana izan ziren ondoren sortuko zen pilaketaren sorrera azaltzen duten elementu erabakigarriak.

Lapurдум, Baionaren sorrera izan zen nukleo zaharra Aturri eta Errobi ibaien artean sortu zen, ezker bazterrean, 10 metroko altuera zuen muino batean, lokaztien erdian. IV. mendean tokiaren etorkizuna baldintzatu zuen harresi batek inguratu zuen nukleo hori, etorkizunean hiri bat bihurtzeko baldintza guztiak betetzen zituen babestutako toki bilakatuz.

IV-IX. mendeen aldia hiriaren suntsitze fase handia bilakatu ziren, ezegonkortasun politikoak eta Akitaniako lurraldeen eraso basatiak zirela eta. XII. eta XIII. mendean egin zen Baionaren berriztapen osoaz ere ez da gauza handirik ezagutzen, eta ez dago garai horri buruzko informazio handirik. Badirudi okupazio hori IX. mendera arte luzatu zela zoritzarrez.



HIRI ALTUA, HIRI BAXUA ETA ERREBALA

XI. mendetik aurrera eta Erdi Aro osoan zehar, Baiona botere erlijiosoaren, militarren eta politikoaren inguruan antolatu zen. Agerikoa da, katedralaren inguruetan, gotzaindegia-
ren, gazteluaren, udaletxearen eta pikotaren presentziarekin.

Hedatzen hari zen biztanlego baten beharrak eta hiriaren birika ekonomiko bilakatu zen portuaren garapenak, Errobi ibaiko bi aldeetako lur baxu zingiratsuetan auzo berrien sorrera ondorioztatu zuten: Hiri Berria eta Pannecau auzoa sortu ziren ibaiaren eskuin bazterrean eta Port-de-Castet eta Port-de-Suzeye kaleak ezker bazterrean. Auzotegien arabera hedapen fenomeno hau, uraren konkista eta inbertsioak egiteko lurren saneamendua dira Erdi Aroko hiriko bilakaeraren elementu nagusiak. Elkargunearen inguruan, hiriko bi auzo historiko eraiki ziren: Baiona Handia, gailurrean, katedralaren inguruan, eta Baiona Ttipia beheko aldean, Errobi ibaiaren eskuin aldean. Aturri ibaiaren eskuin aldean, Baionako iparraldeko sarreratik, Espiritu Saindua errebala sortu zen, Compostelako Donejakuerantz doan zirkulazio ardatz nagusian kokatua, lurraldeko formen eboluzioan erabakigarria den bigarren elementu bilakatu.

HARRESIDUN HIRIA

Baiona Aintzinarotik izan zen hiri militarra bere kokaleku estrategikoa zela eta. Denbora luzez hiriko mugak markatu dituen Castrum erromatarraren ondoren, obra desberdinak egin dira mendeetan zehar: antzinako gotorlekuak gerra-teknika berrietara doitzeko modernizatu ziren eta gotorleku bilakatu ziren beste hainbat hiri zaharretan gertatu zen moduan, harresi bertikalak harresi horizontalekin ordezkatu ziren. Ezagutzen ez ziren gotorlekuaren historiako bi une erakusten dira Baionan: Erdi Aroko harresi ingelesa eta Errenazimenduko bulebarrek. XVI. mende hasierako harresia oso osorik mantentzen da, Frantzia osoan kasu bakarra izanik Baionakoa, eta Europa mendebaldeko bastio-sistemaren agerpena ikertzeko eredu paregabea da. XVII. mendean gotorlekuko birmoldaketarekin batera, errebalen suntsiketa ere eman zen, harresi kanpoko gunea garbitzeko eta segurtatzeko. Neurri horrek harresi barruko biztanleria gutxitzea ondorioztatu zuen. Hiria sortu zuten hiru auzoen toki gorenean gotorleku batek historiako une erabakigarri bat gogora ekartzen digu: goiko hiriko Gaztelu Zaharra XII. mendean eraiki zen Akitania Ingalaterrako erreinuaren menpe gelditu zenean.. Hiri Berrian dagoen



6

Gaztelu Berria berriz, XV. mende erdialdean, Erregeak Baiona berriro hartzearen lekuko da. Espiritu Saindua errebalan dagoen Zitadela Vauban ingeniari militar handiaren lana da, XVII. mendeko mugen birrantolaketa orokoraren testuinguruan. Hiriaren gaur egungo kokapenaren egonkortzea harresi militarren kontserbazio bikainari zor dio. Gotorleku hau Monumentu historikotzat hartzen da eta Europa mailan aparta da, bere luzeragatik, 3,5 km eta bere arkitektura-aniztasunagatik.

IREKITASUNA ETA MODERNIZAZIOA

XVII. eta XVIII. mendeen artean Baionak Erdi Aroko herri bateko ezaugarri guztiak zituen oraindik, kale estuak eta gaizki zolatuak, argi gutxikoak eta ertzetan, edozein modutan lerrokatutako etxeak hegalekin. 1730. urtetik aurrera, beste herri batzuk Argien mendeko hirigintza eta higiene printzipioen arabera eraldatzen ziren bitartean, Baionako antolakuntza mugatuagoa zen, morrontza militarretik ondorioztatutako eragozpenak baitzituzten oraindik, Allées Marines eta Paulmy etorbideen sorrera izan ezik. Zuahitzez betetako pasealeku hauek hiriko bizitza edertzea eta zirkulazioa hobetzea zuten helburu. Aglomerazioaren itsas-izaera, ontziolak eta nazioarteko merkataritzak por-



7

tu-hiri dinamiko bihurtu zuten. Horiek dira ba ibai inguruko eta portuarekin lotutako auzoetako birmoldaketa garrantzitsuenen xede izan ziren eraikinak: kaien eta Douaneko udaletxearen eraikuntza XVIII. mendean eta udaletxearen eta antzokiaren eraikuntza XIX. mendean. Bigarren Inperioko lan hauei esker sartu zen hiria Aro Modernoan. Eraikitako eta proiektatutako ekipo berriek behin betiko apurtu zuten Erregimen Zaharreko azpiegiturekin: geltokia, hall eta hiltegi modernoak, ospitalea, Saint-André lizeoa eta lizeoaren eta hiria modu hidraulikoan elikatzeke proiektuen abiaraztea. Harrizko zubien eta errepede berrien irekidura izan ziren beraz, hirigintza eraldatu zuten elementu garrantzitsuenak. Espiritu Sainduaren atxikimenduak, Iraultzatik landako eskualdea, ere perspektiba berriak ireki zituen hirigintza garatzeari zegokionez.

HIRIA HARRESI KANPOAN

Mende askotan zehar eraiki eta berreraiki ondoren, Baiona, gotorleku barruan zegoen hiria, harresitik kanpora atera zen XX. mende hasieran. Hiriaren hedapen honi 1907an ekin zitzaion, gotorlekua desagertu zenean: herriaren mendebaldean eta hegoaldean zeuden lurraldeak aske gelditu ziren mili-



tarrengandik eta herriaren domeinura pasatu ziren. 1921ean jarraitu zuen, harresia eta lubakitutako Mousserolles eta Marracq lur sailak Herriari eman zitzaizkionean, lurraldearen behin behineko hedapena sorraraziz. Hortik aurrera, herria, hirigune historikoaren inguruan garatu zen: Lachepaillet (gaur egun Arènes), Marracq eta Polo-Beyris auzoak berpizten dira eta arkitektura modelo berriak proposatzen dituzte, Erregionalismoa eta Art Deco estilokoak, hiriguneko eraikinekin haustura ekarriz, Auzo berri horiek XX. mendeko hiriko demografiaren, arkitekturaren eta hirigintzaren berriztapena irudikatzen zuten. Herri bat bere hirigune historikoaren inguruan hedatzen joatearen modeloa 1960ko hamarkadan amaitu zen taldeko bizileku eraikuntza handiak egiten hasi zirenean, askotan ortuei eta landei kendutako lurra erabiliz. Balichon, Gurutze Saindua, Habas-la-Plaine, Codry, Sainsontan eta pabilioi eraiko bizilekuen hedapena. Herriaren hazkundea, hirigunearen inguruan geratzeko eta gehiago zabalduz, ondoko udalerritarantz gauzatu zen modu jarraituan, eta Baionak hiru-buru izateko joera duen hiri-aglomerazio baten barruan pentsatzen eta jarduten du, Angelu eta Biarritzekin batera, baina baita Landetako hegoaldea eta Euskal Kostaldea biltzen dituen lautadaren bihotzean ere.



10



11

4. Baionako plano XVIII.

mendea: hiri altua, hiri baxua (Bourgneuf) eta Espiritu Saindua errebala, Baionako Mediateka

5. Baiona, harresiz inguratutako herria:

ezponda, gotorlekua XVI. mendea eta dorre erromatarra

6. Herriko sarrera Mousserolles atetik,

XVII-XVIII mendea

7. Errobi ibaiaren aurrealdea XIX. mendean Estanpa,

Baionako Mediateka

8. Allées Marines etorbidea

XVIII. mendea
Estanpa, Baionako Mediateka

9. Gurutze Sainduaren Auzoa

Breuer-eko etxebizitza bateko aurrealdea

10. Allées Paulmy etorbidea

Estilo neo-euskalduneko aurrealdea

11. Arènes auzoa

Mendi-etxe bateko xehetasuna

HIRIA

MENDEETAN ZEHAR

1. Santa Maria katedraleko xehetasuna
© G. Auzeméry-Clouteau

2. Baionako herri-erregelamenduak
Erid Aroan
Pirineo-Atlantikoetako artxiboak - Baionako eta Euskal Herriko poloa

I. MENDEA: GIZAKIEN OKUPAZIOA

Bi ur jariok zeharkatzen duten lur hauetan, gune zingiratsuez inguratuta, Pirinioen mendikatearen eta Atlantiar ozeanoaren artean I. mendeko gizonen okupazio aztarnak daude tokian: jarduera metalurgikoa, txanponak, zeramika... Hipotesien arabera: lurraldea hiri-aglomerazio bat zela esan daiteke? Metalen birbanaketa toki bat izan zitekeen? Euskal Herri barruko guneetarako sektore metalurgikoa babesteko gune bat zen?

MENDEACASTRUMA

Baiona zaharra *Lapurdum* izenarekin eza-gutzen zena ez da Erromatar inperioko idatziko iturrietan agertzen IV. mende amaierara arte. Eremu militar hau Errobi eta Aturri ibaien gainean nabarmentzen den muino naturala menderatzen duen gotorlekuak inguratzen du. Harresitutako eta babestutako lur azalerraren tamainak (8,5 ha), garai berean biztanleria zibila ere bazegoela pentsatzera eramaten gaitu. Argi dagoen gauza bakarra: I. mendetik dokumentatua dagoen giza presentzia hori, IV. mendeko harresiaren aurrekoa da.

587: HIRI BAT?

Laburdo hiria lurralde-liskar baten errege-lamenduan aipatzen da 587 urtean (Andelot-


eko ituna) beraz lehiakortasun frankoen gunea da. "hiri" izenak adierazten digu *Laburdo* herri episkopala zela. Zaila da modu formal batean frogatzea gotzaindegi baten sorrera: mende askotan zehar hutsik eta egoera eskasean egon da, godoen eta normandiarren etengabeko erasoen biktima izatean.

1000. URTEA: LAPURDI, BOTEREEN DUALTASUNA

1000. urte inguruan Lapurdi, lurralde-bizkonde batek zuzendua, hiri garrantzitsua zen Gaskoniako dukerriaren barruan ozeanotik harantzagoko harremanetara irekitako harresitutako hiri gisa. Bizkondea eta gotzaina ziren lurraldeko agintari garrantzitsuenak eta boterea eta jabego-eskubideak partekatzen zituzten. Gazteluaren eta Katedralaren artean Lapurdik itxitako lorategi baten itxura du, etxebizitza gutxi batzuekin, luzatutako fosekin inguratuta lokazti eta landa-errebaletan.

1120-1125: ERLIJOAREN ETA HIRIAREN ESNATZEA

Raimond de Martres-en gotzaintza gorteak oparotasun aro erabakigarriari ekin zion, botere laiko eta eklesiatikoaren arteko lankidetzak aktiboak markatuta. Elkarrekin bizkondeak eta gotzainak hiria eta Aturriko



eskuin ertzeko errebela aktiboak hiriarekin zuen lotura indartzeko proiektuari ekin zitoen egurrezko zubi trinko baten eraikuntzarekin. Katedral bat eraikitzen hasi ziren. Gotzainak eskatuta, bizkondeak frankizia arau batzuk itundu zituen hiriaren populatzea sustatzeko. Ondoren arau horiek Akitaniako dukeak egiaz-tatu zituen. Beraz, agintaritza bikoitz horren azpian eman zen, jada *Baïona* izena zuen herriaren lehenengo hirigintza eta erlijio suspergarritasuna.

1152: INGALATERRAKO ERREINUKO LURRALDE AKITANIARRAK

1152. urtean Akitaniako dukearen alaba, Leonor Akitaniakoa eta Henri Plantagenêt Normandiako dukearen eta Ingalaterrako koroaren oinordekoaren arteko ezkontzak Baionako etorkizuna markatu zuen hurrengo hiru mendeetarako. Aitzitik herriak Ingalaterrako koroari atxiki zitzaizkion lurralde akitanarrak integratzen zituen. Bizkondearen tituluak bere edukia galdu zuen pixkanaka, Lapurdiko banaketa administratiboak gertatu zen arte: Baiona bere Hinterlandetik banandua, Ingalaterrako erregearen ordezkari zen probestu baten menpe gelditu zen eta pertsona gorenaren artekin aukeratutako *prud'homme* delako eta kontseilarien laguntzarekin gobernatzen zuen.

1207: MERKATARITZA, HIRIAREN ABERASTASUNA

Merkataritzak aberastasuna eman zion hiriri. 1207an itsasoko jendea biltzeko *Societas navium baionensium* erakundea sortu zen, agerian uzten duelarik itsas-garraioaren hartu-emanen garrantzia, Baionako ekonomiaren oinarria hain zuzen ere. Baionaren garapena armamentuari esker gertatu zen, izan ere toki pribilegiatua ematen zion Garonako lautadako ardo eta ondasunak garraiatzeko Ingalaterrara eta Flandesera. Baionako ontzi-flotaren izen-onaren eredu dira Arrobi ibaiko ontziolan eraikitako ontzi eta galerak.

1215: UDALETXEDUN HIRIA

Joan Lurgabeak 1215ean emandako eskualde izaerak Ingelesen menperaldi osoan zehar hiria arautuko zuen estatutu berria sortu zuen. Garai berdinean Baiona eta Bordel hirietan udaletxeak ezarri ziren, herriko kidego batek zuzenduta. Erregearen agintaritza ordezkatzeko zuzendutako hori eskualdeko zuzendaria zen: justizia gauzatzen zuen, finantzak kudeatu, erkidegoko milizia zuzendu eta herriko giltzak gordetzen zituen. Herri-erakundearen funtzionamendu ona ondoko herrietako biztanleen elkarrekiko babesa ziurtatzeko erkidego-itunaren errespetuan oinarritzen zen.



1337: INGALATERRAREN MENPE-ALDIAREN GOTORLEKUA KONTINENTEAN

Ehun Urteetako gerraren hasieran Baiona Ingalaterraren menpe aldiaren gotorleku garrantzitsua izan zen kontinentean. Ekonomiagatik lotura handia zuen Britainiako uharteekin eta Bordele eta Dax-ekin batera Akitaniako dukerriko ardatzetako bat zen. Baiona, bere itsas-indarraren aldi gorenean Ingalaterraren garaipen guztietan parte hartu zuen eta Bizkaiko Golkoaren gaineko nagusitasuna ziurtatzen lagundu zuen. Arkitektura ingelesa nabari da herrian Mocoron atartearekin Baiona Ttipiko muinoan, XIII. mendean Ingalaterran galiarren aurka eraiki ziren gazteluen erreferentzia zuzena da.

1451: FRANTZIAKO HERRIA

Ehun Urteetako Gerra amaitzean, Frantziako erregeari zin egin zion, bere ondasunak mantentzearen orde. Karlos VII.a Frantziakoak politika bateratzailea aplikatu zuen eta bere kausaren alde nahi zituen baionarrentzat abantaila fiskalak edukitzeko neurriak hartu zituen. Herri-erakundeak burgesiaren alde birrantolatu ziren. Erregeak alkate arrotz bat izendatu zuen, baita burgesiako kide zen alkateorde bat eta idazkari bat



administrazioa zuzentzeko. Haren agintaritza azpimarratu zen Gaztelu Berria eraikitzen hasi zenean: herrirantz begiratzen duten hegaleko bi dorre lodiek, bertako errege-botere berriaren zaintza markatzen zuten.

1578: ATURRI IBAIAREN DIBAGAZIOA ETA DESBIDERATZEA

Aturri ibaiaren bokalearen tokialdatze naturalak, Atlantiar kostaldean arriskuan jartzen zuen Baionako bizitza ekonomikoa. Errege-botereak neurri fiskal eta ekonomikoa hartu zituen Baionako merkataritza suspertzeko. Alferrik... konponbidea beste bat izan zen, eta muturrekoa gainera: ibaitik zuzenean ozeanora ematen zuen bokale bat irekitzeko erabakia hartu zuten. Madrildik etorruta, Escorial monasterioaren eraikuntzan parte hartu zuen Louis de Foix ingeniariak zuzendu zuen proiektua. Izugarrizko lanen eta azken uholde baten ondoren, Aturri ibaiaren bokale artifiziala amaitu eta zuzenean ozeanora isurtzen hasi zen 1578ko urriaren 28an.

1584: ESPIRITU SAINDUA, ERREBALA ESTRATEGIKOA

Espiritu Sainduko errebala, segurtasunagatik edo haren jarduerengatik herriarekin lotura estua bazuen ere, ez zegoen Baionako juris-



dikzioaren edo elizbarrutiaren menpe eta egoera hori nahiko deserosoa zen herriko agintarientzat. Justizia eskubidea Espiritu Sainduko Kolegiatak exekutatzen zuen Luis XI. Erregeak emandako diru-laguntzei esker. Seignautze-ko baroiak, Albreteko jauna, bere eskubideak Aturri ibaiko eskuin ertzearaino hedatu nahi zuen bere boterea lur horiek errebindikatzeko. Espiritu Sainduaren patua, interes desberdinen erdigunean kokatutako lurralde estrategikoa, 1584an zigitatu zen Baionak errebalako eskubideak erosi zitue-nean. Modu honetan Aturri ibai ertzaren gaineko nagusitasuna ziurtatu zuen.

1672: «ITSAS-PORTU EZAGUNA ETA MUGIMENDU HANDIKOA»¹

Aturri ibaiaren bokale berriak Baionako merkataritza berpiztu zuen. Baiona Europako hegoaldearen eta iparraldearen arteko produktuen plataforma izan zen. Aturri ertzean, ontzigintza garatzen hasi zen. Baionako ontzioetatik tamaina guztietako itsasontziak ateratzen ziren: fragatak, ontziak, brigantinak eta Aturri ibaiko ontzi flota guztia. Bale eta bakailao arrantza bere momentu gorenean zegoen Ternuako sardetan. Baionaren interesak ia etengabeko gerra egoeran trinko finkatu ziren. Espainiarekin eta Holandarekin

gerran zegoen: itsas-gerren urrezko aroa zen. Domeinu horri dagokionez, Baiona Dunkerque eta Saint-Malorekin batera portu dinamikoenetakoa zen.

¹ Albert Jouvin Rochefort-ekoa, Barbin, Europako Bidaiaria, Frantziako, Italiako eta Maltako bidaiak, 1672

1680: VAUBAN BAIONAN

Vauban, Luis XIV. erregearen gotorlekuen ingeniaria 1680an iritsi zen Baionara. Herriaren gotorleku rola finkatu zuen, harresiak sendotuz eta zitadela ikusgarria eraikiz Espiritu Sainduaren muinoan. Eraikin militarrik birmoldatu eta indartu ziren, ezpondak behin betirako kendu ziren, herria foseetako urarekin eta berdetasunarekin inguratuz. Gotorlekuak ere aldaketa sakona era erabakigarria jasan zuen. Hala ere, Baiona soldadu-herria zen eta setio luze bati eusteko gai zen. Pirinioetako zaintzailea zen mugan zuen kokaleku estrategikoagatik.

1753: «NAZIO PORTUGALDAR, JUDU ETA ESPAINIARRA»

XVI. mendetik aurrera Espiritu Sainduko errebalan kokatu zen erkidego judutarrek bere antolakuntzaren esparru administrati-boa eta kulturala finkatu zuen 1753. urtean, "Portugaldar judutarren eta espainiarren



erregelamenduarekin". Ekonomikoki botere handia zuen taldea izan zen XVII. mendetik aurrera, Herriko agintariak ezarritako diskriminazio neurriak gaituz, Baionako erkidego hau demografikoki Europako garrantzitsuena izatera iritsi zen mende bat beranduago. Erkidego honek, antolakuntza eredu diaspora portugaldutarraren metropoli intelektual, emanzipazioaren aldeko borroken abangoardian, bere identitate berezia mantentzen du eta horren eredu dira, sinagoga ikusgarri bat, zahar-etxe bat eta hilerri bat.

1843: HIRIKO KULTURA ETA ARTEA

Hiriko antzoki berriaren inaugurazioak 1843 urtean, hurrengo mende osoan zehar garrantzitu zen bizitza kultural eta artistiko oparoaren hasiera markatzen du. Herri-bibliotekaren sorrera, Diseinu-eskola pintura-eskola bihurtzea, musika-eskolaren sorrera eta lizeoaren eraikuntza dira irakinaldi artistiko eta kultural berri horren adibide esanguratsuenak. Musika, historia eta literatura elkarrekin, egunkari eta museo sorrerak ere sorkuntza-abaila hori agerian uzten dute. Horrekin batera, euskal identitatea Lapurdiko eta Baionako tradizioarekin lotzen zuen mugimendu erregionalista jaio zen, kultura dual eta

original baten irudia eraikiz.

1854: ESPIRITU SAINDUKO GELTOKIKO LEHENENGO TRENA

Berriro ere bere historian, Frantziar iraultzatik landako eskualdea zen Espiritu Saindua, erronka guzti horien lurralde bihurtu zen Baionarentzat. Modernotasun eta erronka ekonomiko garrantzitsuen sinonimo zen trenbidearen iristek, tren geltokiaren sorrera ondorioztatu zuen. Bordele-Baiona lineako amaierako geltokia, Aturriko eskuin ertzean, Zitadelaren azpian. Baionak ezin zuen egoera honi bizkarra eman, trenbideen hedapena gero eta handiagoa baitzen eta linea berriak sortu ziren Tolosa Okzitaniarantz eta Espainiarantz. Bi eskualdeak 1857an elkartu ziren behin betirako. Baionari hirigintza garatzeko perspektiba berriak eta komunikabide modernoek estrategia menderatzeko ahalmena ekarri zion horrek.

1882-1884: ARO INDUSTRIALA

Aturriko Burdinolak instalatu ziren Boucau-n, ur gaineko lehen siderurgia ereduaren izan zen hau eta, jada portu industrial bilakatu zen Baionaren asmoaren zeinu berria ere. Toki hori aukeratu zuten gutxiago ordainduta itsaso bidez jaso zezaketelako Ingalaterrako



3. Arkitektura ingelesa

Mocoron dorrea

4. Gaztelu Berriko dorreak

hirirantz begira

5. Aturri ibaiaren ibilbidearen planoak, Nicolas Flamberghe, 1610,

Baionako Mediateka
Ontzi kopuru garrantzitsua eta ontzi-aniztasuna garatzen ari zen portu-jarduera baten lekuko dira

6. Nazio portugaldar, judu eta espainiarren Erregelamendua, 1753,

Pirineo-Atlantikoetako artxiboak - Baionako eta Euskal

7. Blanche Hennebute-ren litografia (1850),

Baionako Mediateka
Udaletxea-antzokia XIX. mendean

8. Trenbideko geltokiaren xehetasuan

© G. Auzeméry-Clouteau

ikatza eta Bizkaiko burdina, eta itsasontziak trabes eta landetako basoetatik ateratako mina zutoinekin beteta ateratzen ziren atzerri. Burdinolen jarduerak tokiko, nazioko eta nazioarteko hartu-emana elikatu zuen eta 1914raino erregularlari hedatu zen portu-trafikoaren intentsitatea neurtzen zuen. Jardueren aztoramena geografikoa ere bazen: portuak hirigunetik urrundu eta jarduerak ibaiaren bokalerantz eraman zituen.

1924, 1926: IDENTITATEEN BAIEZTAPENA

XX. mende hasieran eskualde sentimendu indartsu batek busti zuen sorkuntza literarioa, baionarren atxikimenduarekin: antzerki, olerki eta aldizkari franko-gasgoiek herriko ikuskitzaren aretoak bete zituzten. Euskal identitatearen kontzientzia indartsuak adierazpen toki berezia aurkitu zuen 1924an Baionako Euskal Museoaren sorrerarekin. Gaskoniako Akademia bi urte beranduago sortu zen Gaskoi hizkuntzaren desagertzearen kezkatik. Adierazpen desberdinek animatzen zuten gizarte-kohesioa, hala nola, jaialdiak, desfileak, azokak, kabalkadak, dantzaldiak, batez ere zezen-plazan eta Baionako Arrauna rugby ekipoaren estadioan, ezaguna eta herriko ordezkari bikaina bere joko-estilogatik eta jarreragatik.

1972: HIRI NAGUSIA

XX. mendea aurrera zihoala Baionak gero eta harreman gehiago zituen ondoko Angelu eta Biarritz hiriekin. Hiria bizitzeko modu berri horren instituzionalizazioa BAB gune-metropolitarrak sorrerarekin gauzatu zen. Erakunde berri honekin, Baionak hiri nagusiaren rola hartu zuen "Euskal hiriburua" aldarrikatuz. Pirinio-Aglantikoen prefekturaren menpe, departamentuko bigarren eskualdea da Baiona eta kokaleku estrategikoa du garapen ikaragarria jasan zuen Atlantiar kostaldeko turismoari dagokionez. 48. 873 biztanlerekin (2013) 2580 hektareako azalera batean, hiri-gune dinamiko eta erakargarria da zalantzarik gabe.

1. Burdin-sarea,
aurrealdeko apaingarria

2. Eskailera-kaxa
eta baranda


3. Teilatuaq,
Hiri-ehunduraren dentsita-
tearen erakusle



1



2



3

TOKI BATETIK BESTENA

HIRIKO MONUMENTU APARTA: HIRIGUNEKO BIZIMODUA

**Dubourdieu almirantearen kaia,
Jaureguiberry almirantearen kaia,
Kortsarioen kaia, Bernède kalea**

Baionako hiriguneak, mendeetan zehar berregin eta berreraiki den hiri baten irudia du. Gaur egun duen itxura XVIII. mendetik aurrera diseinatu zen. Oparotasun demografiko eta ekonomikoak, hiria harresi barruan gordetzen zuten gotorlekuak, errebalek desagertzeak, hiri-ehunaren dentsitatea areagotu zuten eta eraikinak zaharberritu behar izatea ondorioztatu zuten. Etxeak, aurrealde estuekin, lur zati txikietan eraikitzen ziren, Frantzia bititoki aparta sortuz: bi giltzadun bititokiak. Horrela definitu zen XX. mende erdira arte luzatu zen eredu baionarra. Hirigune historikoko etxeen aurrealdeak XVIII. eta XIX. mendeak dira batez ere. Bidaxuneko harri grisa eta koloretako zur zatiak aldizkatuz eginak dira, xumeki. Landutako burdina ateetan eta leihoetan ikus daiteke etxeetako aurrealdeetan. Balkoi txikiak, ate-kisketak eta burdin-sareak benetako artelanak dira, burdinoletako maisuek eraikiak. Baionako etxeek badute ezkutuko beste aberastasun bat: eskailerak. Zaharrenak, egurrezkoak dira eta hegazpen baten gainean, XVII. mendeak dira.

Hiriguneko 850 eskailerak hiriko ondareko elementu garrantzitsuenetako bihurtu dira gaur egun. XIX. mendeko hirigintza eta apaintze lan nagusien erronka, Aturriko ertzeko eraikuntza ospetsuak izan ziren: udaletxea-antzokia eta arkitektura-unitate bat erakusten zuten etxebizitzak eraikitzea, Boufflers auzoaren sorrera burgesiako etxebizitza handiekin eta harrizko zubien eraikuntza. Babeserako sektore bat sortu zen 1975ean hirigunea mugatzeko eta etxebizitza eredu apart hori herriko monumentu bilakatzeko. Ondare hori gordetzeko eta zaharberritzeko politika indartsu baterako bidea ireki zuen horrek.

SOTOAK ETA ARKUAK

**Pilori kalea, Prébendés kalea
Porut Berriko kalea, Tonneliers kalea**

Hiriguneko etxeen arkitekturak hiriko kokaleku geografiko zehatz bati erantzuten dioten bi mota nagusiren ordezkari dira: goiko aldeko etxeak, sotoarekin, eta beheko aldekoak, egurrezko hesolen gainean eraikita eta XVII. mendera arte kanalekin inguratuta zeuden, arkuekin beheko solairuan.

Sotoetara eta arkuetara kaletik edo kanaletik sartzeko aukera zegoen eta Erdi Aroko Baionako emankortasun ekonomikoaren lekuko ziren funtzioak betetzen zituzten,



biltegiak eta dendak. Erdi Aroko egitura hauei esker zehatz-mehatz berreraiki ahal izan zen hiriaren planoak. Arkuak Baiona Txipia eta Baiona Handia auzoetan aurkitzen ziren batez ere, Portu Berria kale ezagunean. Pasteur plazara eramaten duten Argenteria eta Pileri kaleetan, Erdi Aroko gune zen merkatu plaza zaharrera dagoen tokian, soto ugari daude esate baterako. Salie eta Espagne kaleetan ere, Erdi Aroko komunikabide ardatz nagusiak ziren. Beste multzo garrantzitsu bat Prébendés kalean aurkitzen da. Arkitektura gotikodun sotoak, oso desberdinak dira arku sinpleetatik nerbio eta tertzeleatedun arku konplexuetara. Neurri arruntenak (5X15m, 5,5X22m, 5X25m) ongi antolatutako etxe urbanizazioa eta eraikin tipikoak dakarzkigute burura. Soto horietako batzuk bikoitzak dira, pasealeku baten bidez komunikatuak. 130 soto gotikoak, ondare ikusezina da eta gaur egungo hiri-ehunean errazago antzematen diren arkudun etxeak dira hiriko aberastasun arkitektoniko nagusietako bi.

ZUBIAK ETA KAIAK

Kortsarioen kaia, Galuperie kaia, Chaho kaia, Dubourdieu kaia, Roquebert kaia, Jaureguiberry kaia, Lesseps kaia, Bergeret kaia

Zubiek zehazten dute hiriaren egitura, funtsezko funtzioa betetzen baitute hiru auzo zaharrenak lotzean: Baiona Handia, Baiona Txipia eta Espiritu Saindua Denbora askoan zehar egurrez eraikiak eta uholdeen hondamendien menpe, zubiek rol estrategikoa izan dute merkataritza-hiri honetan, ibaien arteko komunikazioari dagokionez eta ertz desberdinetara sarbide gisa, bertan deskargatzen baitziren merkantziak. Aldizka mantendu eta batzuetan guztiz birmoldatu dira, XIX. mende erdialdean harriz eraiki zirenera arte. Arroko erriberak, askotan etxeen luzapentzat hartuta eta portuko lanbideak gauzatzeko, pixkanaka hartu eta kai bihurtu zituzten, ibai-ertzeko jabeen ekimenez. Aturri ibaiko ezker ertzean, XVIII. mendetik aurrera kaietan egindako egokitzapenarekin batera zuhaitzez betetako pasealekuak, eta Marines eta Boufflers etorbideak sortu ziren. Ibaiaren eskuin ertzean, Espiritu Sainduan, Aturri ibaian zehar dauden errotadun urmael betelanei esker, ibaiak urbanizatu eta kaiak eraiki ahal izan ziren XIX. mende erdialdetik



6



7

aurrera. Gaur egun, Errobiko ertzak aisia-rako toki paregabe bihurtu dira kafetegi eta jatetxeetako terrazen inguruan. Marea baxua dagoenean paseatzean hirigunean zegoen portu zaharrek paisaia eta jarduerak imajina ditzakegu: amarratze-uztaiak, eskailera-dun bodegak agertzen dira ur azpian. Espiritu Sainduan, Aturri ibaiaren inguruan egokitu-tako pasealekuak Baiona Handia eta Baiona Ttipia behatzeko bista ederrak eskaintzen ditu, baita bokalearen irekiduraren gaineko ikuspegia ere.

XX. MENDEKO AUZOAK TALETEN ARKITEKTURA

Paulmy etorbidea, Iribarne tenienteordearen abenida, Mariana Neoburgekoaren abenida, Cassaigne kalea

Baionak bere gotorleku izaera galdu ondoren, 1907an, Baiona berri bat eraiki zen fortifikazio-tik harantzago, Euskaldunen plazako zabaldu-netik, Paulmy etorbidean zehar, "kanpoaldeko auzo" zaharretaraino, biztanle oso gutxiko landa-gune zabalak: Lachepaillet, Marracq, Mousserolles. Bi gerren arteko aldian eman zen hirigintza gorakadak, behin betiko aldatu zuten Baionaren itxura auzo berriak sortzean. Aldi berean, ageriko berrikuntza arkitektonikoa eman zen, lurralde horietan eraiki ziren

etxeak, hiriguneko etxebizitza tradizionalen itxuratik guztiz urruntzen baitziren. Paulmy etorbidean dauden etheen aurrealdeak agerian uzten dute hirigintzaren eboluzio hori: jabe aberatsen txaletak, luxuzkoak, arkitektura-estilo desberdinen laborategi bat ziruditen. Estilo desberdin horiek nagusitu ziren Euskal Kostaldean 1920-1930 hamarkadetan, eta Lapurdiko baserrien modeloari jarraiki garatu zen mugimendu neo-euskaldunaren eredu ederrenak ikusteko aukera ematen dute. Art deco estiloak ere bere presentzia izan zuen Baiona berrian obra ugariarekin. Bidaxuneko harrizko gaztelu burgesa, bere angelu-dorreekin, estalitako eskalinatekin, galeriekin, landutako leihoen enkoadraketeekin, bizitoki-auzo hauetan asko ematen den arkitektura-eredua da. Etxebizitza mota berri bat agertu zen: txaletak Arkitektura xumeago hau, bolumen simple eta soliekin, askotan zizelkatutako kontsolekin eta egurrezko edo burdinazko balkoiekin apainduak, hiriko auzo askotan aurki daiteke.

BAIONAKO GOIKO ALDEA: BIZIGUNE HANDIEN ARKITEKTURA

Jourdain Abenida

Bizigune handien arkitektura 1963tik aurrera Aturriko eskuin ertzean, Saint-Étienne auzoko



goiko aldean egindako proiektu garrantzitsuan ikus daiteke.

Proiektu honetan 8.000 pertsonentzako 3.500 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zen. Marcel Breuer eraikin enblematiko askoren egilea, horien artean Parisko Unesco jauregia 1952an, aukeratu zuten bizigune handi horiek eraikitzeko. Baionako etxebizitza hauek egiteko, Breuer-ek 1950eko hamarkadan Ingalaterran eman zen arkitektura brutalistan hartu zuen inspirazioa. Hamabi solairutako zazpi eraikin handi eraiki ziren hiriko iparraldeko muinoetan, S forman kokatuta aldapan zegoen lurzoru baten gainean. Lurraldearen beheko aldea banako etxebizitza txikiagoentzat erreserbatu zen. 1960ko hamarkadako arkitektura funtzionalista honek, guztiz kontrajartzen zitzaiona tokiko eredu arkitektonikoari, ez zuen oso harrera ona eduki duplex erako etxebizitzek kalitatea handia izan arren eta inguruan berdeguneak, kultur eta kirol instalazioak eta eraikin administratiboak eduki arren auzo berrian. 1986an auzoa birgaitzeko egin zen proiektuaren helburua hasierako lanaren solitasuna haustea zen. 2005 eta 2013 artean auzoaren balioa handitzeko proiektu garrantzitsu berri bati ekin zitzaion. Gurutze Saindua auzoko arkitektura, kritikatu eta ukatua, tokiko paisaiako

zeinu bilakatu da eta Baionako eraikinen ondarearen zati bat da. XX. mendeko Ondarea zigilua jaso zuen auzoak.

HIRIKO NATURA

Tarrides etorbidea, Catherine de Bourbon etorbidea, Léon Bonnat abenida, Errobi ibaiko zirga-bidea

Baiona, monumentu-multzo ikusgarria deun harresidun hiriak, historian zehar oso ongi mantentzen jakin du bere ondare naturala, hiriarri arnasteko espazioak emanez. Pasealeku anitzen sorrera da hiria apaintzeko eta oxigenatzeko borondate horren lekuko. Zumar-sailek Boufflers etorbidea sortu zuten 1638tik aurrera. Allées Marines etorbidea (1727) pasealeku gisa egokitu zen, zuhaitzak landatu ziren eta aisiarako toki bihurtu zen Baionako jendearentzat. Paulmy etorbidea eta bertako zumaldi bukolikoak (1753) Frantziako pasealeku ederrenetarikoen artean aurkitzen dira. Asmakortasuna, berdeguneei dagokionez, XX. mende hasieratik aurrera erkidegoko ondarean sartu ziren lurralde militarren eta gotorlekuen zaharberritzean ikus daiteke: ezpondak pasealeku publiko bihurtuta, lorategi frantses eta ingeles publikoak, Arma-plazako kasamata zaharren tokian, lorategi botanikoa harresiaren goiko



4. XIX. mendeko eskailera kaxa baten altuera

5. Errobiko ertzetako hiri-paisaia

© G. Auzeméry-Clouteau

6. Baionako hirigintza eredua:

aurrealde estuak lursail
luzeetan

7. Baiona Ttipiko arkuen ikuspegia

aldean, Poterne lorategiak, Saint-Léon haresiko kirol-instalazioak, osasun ibilbidea Mousserolles gotorleku azpian... Hirigunetik hedatuz beste paisaia ikusgarri batzuek ere osatzen dute Baionako ondare naturala Beyris auzoko Ilbarritzeko eta Ansoteko lautadako berdeguneek hiri-ehunaren benetako oxigenazio guneak dira. Baita leku paregabeak toki umel honetako landaretza eta animaliak behatzeko ere. Errobi ibaiaren alboan dagoen zirga-bidea ere herriko birika berdea da, landako paisaia ederra eta paseatzeko leku paregabea.

KATEDRALAREN INGURUAN:

ERDI AROKO HIRIAREN BIHOTZA

Louis Pasteur plaza, Dubarat plaza, Faures kalea, Douer kalea, Sabaterie kalea, Gobernatzaileen kalea

Santa Maria katedralako inguruneak Erdi Aroko Baionako historiara eramaten gaituzte. Hiriguneak, perimetro murriztu batean biltzen zituen botere erlijioso, zibil, militar eta ekonomikoak. Erdian, komentuak inguratutako katedrala, gotzaindegia eta kalonjeen etxea daude. Katedrala 1258an hasi ziren eraikitzen, eraikin erromatar baten sutearen ondoren. XIII. mendeko lehen erdialdeko eraikin frantsesen erreferentzietan oinarrituz, hala nola

Soissons eta Reims katedraletakoa ereduetan. Komentuan hilerria zegoen eta bizitza publiko-rako espazio gisa ere erabiltzen zen: Baionako agintariak, ematen zuen itzalpean elkartzen ziren eta bertan onartzen zituzten herri-ordenantzak edo egiten zuten zin. Notre-Dame plazan, udaletxean, merkatuan eta pilorian bizitza publiko bizia ematen zen. Hortik ez oso urrun, agintari militarrek bizi ziren gaztelua kokatzen zen. Gaur egun, Erdi Aroko herri horren aztarna gutxi aurki ditzakegu hiriko paisaian. Katedral gotikoaren itzalean kokatzen da, pilori iturritik gertu. Dubarat plazako lorategian ikus daiteke, bertan aurkitzen da gotzaindegian, Mediateka. Gaztelu Zaharraren presentziarekin herriaren goiko aldetik badirudi egia izan daitekeela gotzaindegi horren sorrera. Beste aztarna batzuk alegia, ez hain agerikoak, uzten dute agerian Baionak izan zuen Erdi Aroko iragana: katedralera zuzentzen duten kaleen egitura, hirigunean pilatzen ziren lanbideen arabera ordenatuak, Erdi Aroko hiri antolakuntza tipikoa da Erdi Aroko korporazioak gogorazten dituzten kaleen izen gaskoiekin batera. Ezkutuan dagoen ondare pribatua da bestalde, goiko hiriko ehun bat etxetan dauden sotoak edo *sostarrainhs* direlakoak. Erdi Aroko hiria ulertzen laguntzeko ondareko elementu azpimarragarriak eta originalak dira.

8. Ardiak hirian:

ondare berdearen artatze
iraunkorra

9. Katedraleko orratzen perspektiba komentutik

10. Aturri ibaiko ertzak Espiritu Sainduan:

Lesseps kaia

© G. Auzeméry-Clouteau

11. Baiona Ttipia auzoko modernotasuna:

Unibertsitateko biblioteka



10

ESPIRITU SAINDUA AUZOA

Errepublik plaza, Maubec kalea, Bergeret almirantearen kaia, Lesseps kaia

XII. mende hasieran, Aturri ibaian egurrezko zubi bat eraiki zen Baiona eta ibaiaren ezker bazterreko errebala lotzeko. Igarobide hori erromesek erabiltzen zuten Donejakue Bidean Compostelara zihoazela. Bi hospizio zeuden inguruan erromesak hartzeko: Jarusalengo Zaldunarena, gaur egun desagertuta, Maubec kaleko 4. zenbakian eta Espiritu Sainduko elizako priore-etxekoa, gaur egungo eliza dagoen toki berean. Errebala, espetxe, pasabide eta aterpe tokia zen eta, XVI. mendetik aurrera Inkisizioak jazarri zituen Espainiako eta Portugalgo familia-judutarren bititoki bihurtu zen. Auzoan juduen aztarna dago, ongi antolatutako erkidegoa zen, ekonomikoki boterea zuena, hilerriarekin, zaharren-egoitzarekin, purifikazio bainuetxeekin eta sinagogarekin. Errebala XVII. mendean harresitu zuen Vauban marexalak eta zitadela eraikitzea agindu zuten. XIX. mendera arte, Espiritu Saindua, bere ontziola eta biltegiekin, Baionako portuko jardueretan parte hartzen zuen auzoa zen. Gaur egun duen fisionomiak 1857an zinatutako Baionako eskualdeko administrazioari atxiki zitzaion aldian gertatutako aldaketa sakonen ondorioa da: trenbidea iristea eta tren gel-

tokia eraikitzea, ibaiaren inguruko lehorketa eta partzelazioa, kaien egokitzapena, Espiritu Sainduko zubia harriz eraikitzea. Art deco estiloa XX. mende hasieran agertu zen auzoan, Itsasoan Izen emateko eraikina bezalako lan garrantzitsuekin, gaur egin DIDAM arte galeria bilakatu da eraikin hori eta aldi baterako erakusketak egiten ditu. Art deco estiloa Aturri ibai ertzeko arkitekturako txaletetan ere ikus daiteke. Baionako auzoa edo herria herriaren barruan, Espiritu Saindua, abegi lur izatearen tradizioari eutsiz, bere populazioaren kultura aniztasunaren garrantzia errebindikatzen du, eta elkarte desberdinen bizitasuna nabaritzen hasten da.

BAIONA TTIPIA

Réduit plaza, Galuperie kaia, Kortsarion kaia, Paul-Bert plaza

Aturri eta Errobi ibaien artean Baiona Ttipia Réduin gailurretik hasita luzatzen da, bokalean, auzoa inguratzen duten harresien azpian, hirien mugak zehaztuz. Uharte itxura ematen dioten bi ur jariok inguratua, lokaztiei irabazitako hiruki forma duen lurmutur hau XII. mendeko Baionako lehenengo hiri-luzapena da. Urak auzoan izan duen presentziak zehaztu du haren hirigintza eta jarduera historikoak. Errobi ibaiaren kosta,



11

tokiko portu-izaera gogoratzen duten kaiez eta arkuz betetako paisaia. Portu izaera hori kaleen izendegian ere ikus daiteke. Aturri ibaiaren kosta, XIX. mende erdialdean eraikitako etxebizitza burgesez beteta dago eta ibaiaz gozatzeko ikuspegi moduan funtzionatzen du. XX. mendetik aurrera garatutako auzoak izaera kultural indartsua du, Bonnat-Helleu Museoaren (1901) eta Baionako Euskal Museoaren (1924) sorrerarekin. 2008an Unibertsitateko instalazio bat eraiki zen harrisiaren bihotzean, auzoari bizitasuna eta gartzetasuna emanaz. Benetako erronka suposatu zuen arkitektura militarrek zaharberritzeko lanak: XIX mendeko kuartelak eta biltegiak, XVII. mendeko elementuak anfiteatro eta gela bihurtuz. Unibertsitateko biblioteca berriaren estetika garaikidea da lan horien modernotasunaren erakusle. Ikasle-bizitzaren eta irekitasun kulturalaren artean, Baiona Ttipiak bere irudia berriztatu du kalitatezko hirigintza proiektu honi esker eta eraikin zaharren egokitzapen lanei esker.

PRAKTIKAK

ETA IDENTITATEAK

HIZKUNTZAK

Hiriko elebitasuna Baiona egituratu duen arrago kultural eta historiko bikoitzak azaltzen du. Hiri euskalduna eta gaskoia baita aldi berean. Gaskoia zen Erdi Aroko Baionako hizkuntza ofiziala: horren lekuko dira XII. mendeko

artxibo zaharrenak. Gaskoiak tokiko toponimian ere eragin handia izan zuen. Nekazal eremu handiak, gaur egun desagertuta dauden baserri eta errotak toponimo zaharren erreserba amaigabea dira, herriaren oinarri gaskoia agerian utziz. XX. mende hasieran Espiritu Saindua auzoko eguneroko bizitzak oraindik bazituen gaskoi oihartzunak eta aldizkarietan eta antzerki eta ikuskizun arrakastatsuetan erabiltzen zen. Euskara, Europako hizkuntza zaharretakoa da eta XVI. mendean hedatu eta aintzat hartu zen inprimatutako literaturan lehenengoz agertu zenean: 1571ko Itun Berriaren euskararatzea da euskarazko ondare inprimatuaren abiapuntua. Euskararen erabilpena eta defentsa Baionan XX. mende hasieran indartu zen erregionaltasunaren inguruko sentimenduaren gorakadarekin. Aberri zentzu horren errebindikazioa zen. Euskararen inguruko erakunde hau geroz eta gehiago hedatu zen XX. mendean zehar, Euskaltzaindiaren,

Ikerketa zentro baten eta euskarazko administrazio publikoaren sorrerarekin. Gainera eskoletan hezkuntza elebiduna inplementatu zen. Euskara hizkuntza agertzen den diziplina anitzak, hots, musika, antzerkia, kantua, dantza, hiriko eguneroko bizitzako identitate moduan adierazten da. Baionako bi hizkuntza sortzaileen inguruan beste kultura batzuk ere eragina izan dute aniztasun hori aberasteko orduan. Portugalera, gaztelera, arabiarra edo kreolera, eta hiriko auzoetan erregistratu diren hogeita hamar hizkuntza desberdin baino gehiago.

GIZA-HARREMANAK

Hasieratik, XIX. mendean Baionako gizarteak bizitasun handia du. Bigarren Inperiotik aurrera garatu zen bizitza kulturala eta aisialdiak sentsibilitate desberdinetako elkarte asko sorrarazi zituzten. Musika elkarteak oso modan zeuden baita kirolarekin eta munduarekin lotutako zirkuluak ere. Zaharrenean artean, horietako batzuk benetakako erakunde bihurtuak, ehun urte baino gehiago dituzte: Zientzien, Letren eta Arteen Elkarte (1873), Itsaso-Elkarte (1875) eta Harmonie Bayonnaise (1879). Elkarte horien biziraupenak agerian uzten du Baionako gizartearentzat zer nolako garrantzia izaten

KALENDER A.
BAZCO NOIZ DATEN,
ILHARGVI BERRIAREN
eta letra Dominicalaren eça-
gutzeco manera-
requin.

*Nesta ditzogen direnario-ere bazzu egarri izan
dira, ez / gauden herce egun santificatuzco-
ric delacoz, baina feriataco, hieru-amanataco,
eta asto herce guezataco egun iaquinac eta be-
reclac diruzente- arbiruz dutezoz.*

ROCHELLAN.
Pierre Hautin, Imprimigale.
1571.

1



2



3



4



5

jarraitzen duten kirolak eta kulturak, mende bat beranduago. Gainera adierazteko modu desberdinak aurkitu dituen garai desberdinak zeharkatzen dituen lotura sozial horren indarra azpimarragarria da. Baionako bizitza sozialaren ardatzetako bat jaiak dira. 80 peña inguru daude jaiaren kultura forma guztietan eta lagun giroa eta bizikidetzaren filosofia defendatzen dute. Jai erakunde horietako batzuk ondarea osatzen duten ezohizko tokietan hartzen dituzte gonbidatuak, kuarteletan hain zuzen ere, hiriaren lurrazpiko ondare ezkutua. Baionar erara bizitzeko arte horren goren aldia uztaileko azken astean zehar bizi daiteke, Baionako Jaietan. Jai hauen 1932an sortu ziren eta identitate faktore indartsuen inguruan eratzen dira, guztientzat helgarriak ikuspuntu ireki eta lagunartekoan.

KIROLA

Baionako kirolak, praktikatik edo sortzen duten pasioagatik harantzago, ondare dimentsio indartsua suposatzen dute, toki historikoen zahartasunean inskribatuak edo hiriaren identitatara mugatzen diren soziabilitate formetan. Pilota XVI. mendean, oso goiz agertu zen historian, esku-pilotarako gune batekin, "tripot Maubec" frontoia. Kirol hau mendeetan zehar mantendu da eta horre-

gatik toki hori badago oraindik, Saint-André frontoia, gaur egun. 1913an eraiki zen Frontoia modernoa 1997an berriztatu zen erabat eta beirazko hiru pareta dituen munduko frontoi bakarra da. Frontoia eta horma guzti horiekin auzoetan zehar banatuta, Baionan esku-pilota oso bizirik dagoela esan daiteke. Itsasoko kirolek ere presentzia handia dute ibaiagatik, gaur egun kirol-klubak bihurtu diren erakundeen sorrerarekin: Itsaso Erakundea, aktibo dagoen erakunde zaharrena, 1875ean sortu zen, Baionako Arrauna rugby taldea ospetsua berriz 1904an. 1913. urtea ezin hobea izan zen Baionako Arrauna rugby taldearentzat, Frantziako rugby txapela irabaziz. Horrela hasi zen baionarrek bere rugby taldearekiko duten pasioa. Baionako Arrauna rugby taldea hiriko enbaxadore bihurtu da bere "joko baionarrek". Jean Dauger estadioa 1935ean eraiki zenetik, ondare immateriala den kirol baten pasioak bizi izan diren toki bilakatu da.

GASTRONOMIA

Baionako gastronomiak toki berezia du, hiriko eta eskualdeko gizarte-historian eta ekonomian trinko sustartua. Kontsumitze hutsaz haraindik, XVII. eta XVIII mendean hiriari ospe handia eman zioten produktuak, urdaiazpikoa, txokolata, pulin eta antzar izterrak,



alegia, Baionatik pasatzen diren pertsona ospetsuei eskaintzen zaizkie beti. Jateko opari horrek xede politikoa eta merkatal estrategiarena dute, beren iraunkortasuna zehaztuz. Urdaiazpikoa Erdi Arotik ekoizten da. Aturriko lautadan ekoizten da eta bere ospe ona eta zapore ona urdaiazpikoa kontserbatzeko erabiltzen den gatzaren kalitateari dagokio. Hiriko enblema da merkaturatzeari eta Baionako portutik esportatzeari esker. Batez ere urdaiazpikoa urtero ospatzen delako, XIX. mende erdialdetik, udaberriko Azoka tradizionalan. 60ko hamarkadaz geroztik Urdaiazpikoaren Anaitasunak, ondareko elementua den urdaiazpikoaren jatorri-deitura eta balioztatzea babesteaz arduratzen da. Txokolatea ere historia handia duen produktua da: Baiona txokolatearen hiriburu bihurtu delarik. XVII mendena agertu zen edari bat zen hasiera batean. Txokolatea judutarrekin oso lotuta dago, Espainiatik eraman baitzituzten kakao alearen ekoizpenaren eta merkaturatzearen sekretuak. Hasiera batean, gizartearen elite baterako erreserbatzen zen, baina poliki-poliki Baionako eta Lapurdiko gizartea hasi zen txokolatea kontsumitzen. Txokolate-dinastia garrantzitsuek sortutako merkatal entseinak XIX. mendean garatu ziren: txokolatea bonboi, gozo edo izozki bihurtua. Hiriko

txokolate tradizioak, Txokolatearen Akademia baten laguntzarekin trebezia eta historia batzen dituen identitate berezia sortu zuen.

ZEZENKETAK ETA TAUROMAKIA

Zezenen tradizioaren jatorria Erdi Aroan dago, hiriko idi eta behien zezenketa eta entzierroekin. Kirol eta ikuskizun arteko praktika hori XIII. mendetik dator, "Frantziako zezen-hiri zaharrena" dela errebindikatzeko Baionak eta identitate berezia ematen dio hiriri. Mendeetan zehar udalak antolatutako zezenketek, gertaera garrantzitsu bat ospatzeko, izaera ofiziala eta jai girokoa zuten, hirian bisitan zeuden pertsonaia ospetsuei eskaintzeko ikuskizuna, alegia. Zezenketa guneek praktika horren indarra agerian uzten dute hiri-ehunduran: Espiritu Sainduko zezen-plazak, gaur egun desagertuta, inspirazio espainiar-moriskodun Lachepailleteko zezen-plaza, zezenketa denboraldian zehar zaletu asko biltzen dituen. Baionako zezen-plazak ospe handia zuen eta zaletu ezagunak bildu zituen: Felipe V. Espainiakoa, Napoleon III., Eugenia Montijokoa, Prosper Mérimée, Théophile Gauthier eta Ernest Hemingway idazleak, eta Picasso... urtero, tauromakiaren munduko ezen handiak biltzen ziren Baionan eta jendea zutikako edo zaldi gaineko zezenketak eta



novilladak ikusteko gerturaten zen plazara. Tradizio honekin batera zezen-elkarteak sortu ziren, ondare immaterial hau animatzeko eta berrizatzeko asmoz.



1. Itun Berriko itzulpena euskarara

1571, Baionako Mediateka

2. Hirueleduntasuna

hirian

3. Zapi gorria,

derrigorrezko elementua jaietako jantzian

4. Bizikidetzeta kuartel batean

5. Errobiko ertzak

jaietan

6. Jean Dager estadioaren zoramena

Baionako Arraunaren partida batean

7. Errobi ibaia arraun

lasterketa batekin

8. Pilota-partida

Frontoi Berrian

9. Plaza de Bayonne

Programazioa 1894an, kartela, Baionako Mediateka

10. Kakao aleak

11. Urdaiazpiko azoka

12. Arènes auzoa Baionan



10



11



12



GRAND BAYONNE

PETIT BAYONNE

NIVE

« BAIONA, ETXE ALTUAK, KALE FRESKOAK, ISTILU GABE NAHASTEN DIREN IBAIAK. ZU KONTATZEN KONTA DEZAKET NIRE BURUA ETA NIRE SUSTRAI ZAHARRENAK IGARRI. »

Jean Cayrol, *Vivre dans les Basses-Pyrénées 1900-1930* aurrehitzza, 1980

GIDATUTAKO BISITEN INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

BISITA BAT ERRESERBATZEKO ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARGIBIDEAK
LORTZEKO

Oficina de Turismo

Euskaldunen plaza 25

64100 Baiona / 05 59 46 09 00

bayonne-tourisme.com

infos@bayonne-tourisme.com

Utzi Baionako istorioak konta diezazuten... Kultura eta Komunikazio ministerioko gida batekin. Gidariak arreta eskainiko dizu. Baionako xehetasun guztiak ezagutzen ditu eta plaza bateko eskailera bat, hiriaren grapena bere auzoetan zehar, ulertzeko gakoak emango dizkizu. Gidariak arretaz entzungo zaitu. Egin galderak beldurrik gabe. Taldean bazaude, Arte eta historia hiriak bisitak proposatzen dizkizugu urte osoan zehar erreserba eginez gero.

Turismo Bulegoarekin elkarlanean, Arte eta Historia Hiriak urtero proposatzen ditu jarduerak hiritarrentzat, ikasleentzat eta turistentzat.

Baiona Arte eta Historia 184 Hiri eta Eskualdeen sare nazionalen agertzen da. Kultura eta Komunikazio ministerioak eta Arkitektura eta Ondare zuzendaritzak, Arte eta historia Hiri eta Eskuladeen deitura bertako ondarea maite duten tokiko elkarteei esker lortu dela uste du.



**«PARCOURS : BAIONA» SALMENTAN
BAIONAKO TURISMO BULEGOAN
EUSKALDUNEN PLAZA 25 // PREZIOA: 3 €**